

Euskadiko gazteen % 75ek ez dute autoenpleguan sartzerik pentsatzen

Enpresa ekimen bat garatzeko prest daudenak, gehienbat, lanean ari diren biztanle gazteak eta adinez nagusienak (25 eta 29 urte bitartekoak) dira



2001eko Biztanle eta Etxebizitzen Zentsuko datuek aditzera ematen dutenez, 15 eta 29 urte bitarteko biztanleen % 7 bere kabuz dabil lanean. 1991ko eta 1996ko zentsuetan bildutako datuak kontuan hartuz gero, gazte enpresari edo autonomoen kopuruak behera egin du.

Euskadiko Gazteak bilduman askotariko gaiak lantzen dira, Euskadiko biztanle gazteen errealitatea ezagutzen laguntzen dutenak. Aztertutako alderdi horien artean gazteek autoenpleguaren inguruan duten jarrera dago.

Bilduma horretako azkeneko txostenean, Euskadiko gazteak 2004 argitalpenean, alegia, enpresa ekimen bat abiarazteko aukerei buruzko datuek adierazten dutena da biztanle gazteek ez dutela aukera hori oso aintzat hartzen. Zehazki, inkestatuen % 79k ez dute aukera horretan pentsatu eta, pentsatzekotan ere, lanean horrela ez aritzea erabaki dute. % 11 zalantzan daude, eta % 10ek pentsatu dute, edo jada beren kabuz lan egiten dute.

2000n jasotako datuekin alderatuta (Euskadiko gazteak 2000n), 2004ra bitartean beren kontura lan egitea pentsatu duten edo jada horrela lanean dabiltzan gazteen proportzioa murriztu egin da. Izan ere, 2000n, % 61ek ez dute autonomo izateko aukeran pentsatu; % 21 autonomo ziren edo autonomo izatea pentsatzen ari ziren; % 18k, azkenik, ez zuten aukera hori argi ikusten.

15 eta 29 urte bitarteko biztanle gazteek autoenpleguari buruz duten jarrera. EAE. Portzentajeak. 2000-2004				
	Positiboa	Zalantzan	Negatiboa	
2000	21	18	61	100
Gizonezkoak	24	17	59	100
Emakumezkoak	19	19	63	100
2004	10	11	79	100
Gizonezkoak	10	11	79	100
Emakumezkoak	10	11	79	100

Iturria: Euskadiko gazteak 2000 eta Euskadiko gazteak 2004. Gazteen Euskal Behatokia

2004ko datuak sexuaren arabera bereizita, 2004an ez dago desberdintasunik: ehunekoak neskengan zein mutilengan oso antzekoak dira. 2000ko datuei dagokienez, badago alderik: neskek ez zuten autoenplegatuturik egoteko asmorik; mutilek, ordea, bai.

Adinez nagusienak diren gazteek (15 eta 29 urte bitartekoak) jarrera positiboagoa dute autoenpleguarekiko. Gazteenak (15 eta 29 urte bitartekoak), aldiz, zalantzatzen dira; are gehiago, aukera hori hein handiagoan baztertzen dute beste adin-taldeetakoek baino.

15 eta 29 urte bitarteko biztanle gazteek autoenpleguari buruz duten jarrera, adin-taldearen arabera. EAE. Portzentajeak. 2000-2004					
		Positiboa	Zalantzan	Negatiboa	
2000	15-19	13	18	70	100
	20-24	19	20	62	100
	25-29	30	17	53	100
2004	15-19	7	12	82	100
	20-24	9	11	79	100
	25-29	13	9	78	100

Iturria: Euskadiko gazteak 2000 eta Euskadiko gazteak 2004. Gazteen Euskal Behatokia

Lanbide-egoerari dagokionez, lanean dauden gazteek iritzi positiboagoa dute enpresa-ekimen bat abiarazteari buruz. Ikasten, langabezian edo etxeko lanetan dabilzanek ordea, ez dute argi ikusten nork bere kabuz lan egitearen aukera; batez ere, ez dute aukera horretan pentsatu ere egin. Iritzi kontuetan, etxeko lanetan dabilzanak nabarmentzen dira, % 92k nork bere kontura lan egiteko aukera gaitzesten baitute.

Datuon bilakaera aztertzerakoan, aipagarria da autoenplegua aintzat hartzen ez duten gazteen gorakada, bereziki langabezian daudenena. Talde hori 2000n autoenplegatuta aritzeko aukerari baloraziorik positiboena ematen zuena izatetik 2004an aukera hori gehien baztertzen duena izatera igaro da.

15 eta 29 urte bitarteko biztanle gazteek autoenpleguari buruz duten jarrera, lanbide-egoeraren arabera. EAE. Portzentajeak. 2000-2004					
		Positiboa	Zalantzan	Negatiboa	
2000	Ikasten	15	20	65	100
	Lanean	26	15	59	100
	Ikasten/Lanean	21	21	57	100
	Langabezian	29	23	48	100
2004	Ikasten	7	12	81	100
	Lanean*	13	11	76	100
	Langabezian	9	6	84	100
	Etxeko lanetan*	0	8	92	100

Iturria: Euskadiko gazteak 2000 eta Euskadiko gazteak 2004. Gazteen Euskal Behatokia

* 2004ko datuetan, lanbide-egoeran, *Etxeko lanetan* kategorian barne hartuta dago. Lanean kategorian, berriz, *Ikasketak eta lana partekatzen dituztenak* ere sartzen dira, 2000ko datuetan jasota geratu den moduan

Erlazionaturiko datu taulak:

1. taula, (pdf, 27 kb)

2. taula, (pdf, 21 kb)

Erlazionaturiko estekak:

[Gazteen Euskal Behatokiaren estatistikak](#)

